

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 14/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 11koa. Aldatzea martxoaren 9ko 133/2005 eta irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduak, hurrenez hurren onesten dituztenak 198 eta 289 ereduak**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren bidez 198 ereduak onetsi zen (finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egitekoa), eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduaren bidez, berriz, 289 ereduak (finantza kontuen urteko informazio aitortpena egitekoa elkarrekiko laguntzaren esparruan); gainera, haren bidez, beste zerga arau batzuk aldatzen dira. Foru agindu horiek aldatu badira funtsean izan da gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta mantentzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 198 eta 289 ereduaren informazio aitortpenari aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 198 ereduak, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena, bai eta haren barruko orrien orde ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduari:

Bat. "ZEHAPENAK" eremua gehitu da, 1 motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa) 198tik 214ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da eta, aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuari dagozkion posizioak eguneratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
198-214	Zenbakizkoa	ZEHAPENAK Eremu numerikoa, 17 posiziokoa. ZEHAPENAK eremuetan (2 motako erregistroaren 442-453 posizioak) islatutako kopuruen batura jasoko da, koma hamartarrik gabe. Eremu hau bitan banatzen da: 198-212 Zehapenen zenbatekoaren zati osoa. 213-214 Zehapenen zenbatekoaren zati hamartarra.
215-220	—	ZURIUNEAK

Bi. Aldatu egiten dira 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 84-90 posizioak, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan. Honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
84-90	—	ZURIUNEAK

Hiru. "ERAGIKETAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 134 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
134	Alfabetikoa	<p>ERAGIKETAREN GAKOA</p> <p>A Eskubideen eskuratzea edo eraketa.</p> <p>C Trukea. Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak).</p> <p>D Bihurketa. Bi eragiketa aitortu behar dira, bihurketarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko bihurketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak).</p> <p>E Eskubideak ezereztea edo azkentzea.</p> <p>F Jaulkipen primaren itzulketa. Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, "H" gakoia jarri behar ez denean.</p> <p>G Kapitala murriztea ekarpenak itzuliz. Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, "I" gakoia jarri behar ez denean.</p> <p>H Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 2014/65/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen jaulkipen primaren itzulketa.</p> <p>I Kapital murrizketa ekarpenak itzuliz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 2014/65/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreei dagokienez.</p> <p>J Kapital murrizketa baloreak amortizatuz.</p> <p>K Banatu gabeko mozkinetatik sortutako kapital murrizketa.</p> <p>L Baloreen splita eta kontrasplita. Bi eragiketa aitortu behar dira, splitarena edo kontrasplitarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko split (edo kontrasplit)/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak).</p> <p>O Maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian araututako balore maileguak.</p> <p>P Balore maileguaren eraketa.</p> <p>Q Balore maileguaren azkentzea.</p> <p>S Harpidetza.</p> <p>T Eskualdatzea, amortizazioa edo itzultzea.</p> <p>V Balore trukea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 105. artikuluko baldintzak betetzen dituena. Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak).</p>

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
134	Alfabetikoa	<p>X Akzio erabat ordainduen ematea. Gako hau jarri behar da, aitorituak alde aurretik zeuzkan harpidetza eskubideei dagozkien akzioetarako. Aitorituak alde aurretik zeuzkan gainerako harpidetza eskubideei dagokienez, baldin eta nahikoa ez badira eta horregatik beste eskubide batzuk eskuratu baditu akzio berriak harpidetzeko, ez da jarriko X gako hau, ezpada elkarren artean loturik dauden bi erregistro independente aitorituko dira: bata harpidetza eskubideak eskuratzeagatik ("A" eragiketa gakoa) eta bestea akzioak harpidetzeagatik ("S" eragiketa gakoa). Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkeraz zentzuzko gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko eskuratzeko/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkeraz zentzuzkoak identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak).</p> <p>Y Bat-egitea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean. Bi eragiketa aitoritu behar dira, bat-egitearena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkeraz zentzuzko gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko bat-egite/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkeraz zentzuzkoak identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak). Bat-egite eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, "C" gakoa jarri behar da.</p> <p>Z Zatiketa, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean. Bi eragiketa aitoritu behar dira, zatiketarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkeraz zentzuzko gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 177-184 posizioak), loturiko zatiketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkeraz zentzuzkoak identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 454-461 posizioak). Zatiketa eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, "C" gakoa jarri behar da.</p> <p>W Bestelako eragiketak.</p> <p>Eragiketak behar direnean ("C", "D", "L", "V", "X", "Y" eta "Z" eragiketa gakoak), "ERAGIKETAREN EKITALDIA" eremua beteko da (368-371 posizioak), ekitaldi hori aitorpenarena ez den ekitaldi bat denean.</p>

Lau. "BALOREAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 137 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
137	Alfabetikoa	<p>BALOREAREN GAKOA</p> <p>A Akzioak eta partaidetzak erantzukizun mugatuko sozietateetan.</p> <p>B Atxikipena egiteko betebeharretik salbuetsitako etekin esplizituko finantza aktiboak, deskribapena J gakoan duten finantza aktiboak izan ezik.</p> <p>C Atxikipena egiteko betebeharretik salbuetsitako etekin inplizituko finantza aktiboak.</p> <p>D Banandu nagusiak.</p> <p>E Banandutako kupoiak.</p> <p>F Berme eskubideak.</p> <p>G Gozamen eskubideak.</p> <p>H Harpidetza eskubideak.</p> <p>K Lehenasunezko partaidetzak edo bestelako zor tresnak.</p> <p>M Talde inbertsioko erakundeetako akzioak eta partaidetzak. Gako hori bakarrik jarri ahal izango da eragiketa-gakoaren eremuan "P" edo "Q" jarri bada.</p> <p>J Atxikipena egiteko betebeharretik salbuetsitako etekin esplizituko eta lurraldeko erakunde publikoek jaulkitako finantza-aktiboak, bi urte edo gutxiagoko amortizazioa dutenak eta horien eragiketaren zenbatekoa (amortizazio balioa) balio nominalarekin bat datorrena.</p> <p>L Aldeen araberako kontratuak.</p> <p>I Beste batzuk.</p>

Bost. Aldatu egiten dira 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 138-149 posizioak, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan. Honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
138-149	—	ZURIUNEAK

Sei. "HURRENKERA zenbakia" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 177tik 184ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da, aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuari dagozkion posizioak eguneratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
177-184	Zenbakizkoa	HURRENKERA zenbakia Eragiketa bakoitza modu sekuentzialean zenbakituko da, eragiketa berean aitortu guztiak (baita etekinak jasotzen dituztenen konturako hirugarrenek ere, lehenasunezko partaidetzen kasuan) hurrenkeara zenbaki bera izan dezaten.
185-187	—	ZURIUNEAK

Zazpi. Aldatu egiten dira 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 209-215 posizioak, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan. Honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
209-215	—	ZURIUNEAK

Zortzi. "KONPENTSAZIOAK" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 224tik 235ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
224-235	Zenbakizkoa	KONPENTSAZIOAK Baloreak mailegatzeko eragiketen kasuan horretarako, "O" jarri da "ERAGIKETA GAKOA" eremuan (2 motako erregistroaren 134 posizioa), konpentsazioen zenbatekoa jarriko da eremu horretan. "ERAGIKETA GAKOA" eremuaren gainerako gakoetan (2 motako erregistroaren 134 posizioa), "V", "Y" eta "Z" gakoetan izan ezik, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81.etik 84.era bitarteko artikuluetan ezarritako balore negoziagarriak likidatzeko prozeduratik sortutako likidazioko konpentsazioen eta doikuntzen zenbatekoa idatziko da. Batzordearen 2018ko maiatzaren 25eko 2018/1229 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakotik eratorritako konpentsazioen zenbatekoa idatziko da; erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 (EB) Erregelamendua osatzen du, likidazio diziplinari buruzko erregulazio arau teknikoetarako dagoen. Eremu hau bi eremutan banatzen da: 224-233 Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa. 234-235 Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.

Bederatzi. "ERAGIKETAREN GASTUAK" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 329tik 340ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
329-340	Numerikoa	ERAGIKETAREN GASTUAK "A" gakoa jartzen baldin bada "BALORE GAKOA" eremuan (137 posizioa), eta "A", "B" edo "P" gakoa jartzen baldin bada "MERKATU GAKOA" eremuan, eragiketa hori egiteak dakartzan gastuen zenbatekoa jarriko da eremu horretan, hala badagokio. Eragiketari lotutako aitortu asko daudenean, haietako bakoitzean, haietako bakoitzari partaidetzaren ehunekoaren arabera egotz dakioken eragiketaren gastuen zenbateko osoa idatziko da. Eremu hori ezin izango da bete hartzailea bada sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna (establezimendu iraunkorreakin). Eremu hori bitan banatzen da: 329-338 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati osoa. 339-340 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati hamartarra.

Hamar. Aldatu egiten dira 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 341-347 posizioak, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan. Honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
341-347	—	ZURIUNEAK

Hamaika. "FINANTZA-AKTIBOEN KOPURUA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 428tik 441ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
428-441	Zenbakizkoa	FINANTZA-AKTIBOEN KOPURUA Bi eremutan banatuta dago: 428-437 Eragiketaren xede diren balore, eskubide, partaidetza edo kontratuen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira 438-441 Eragiketaren xede diren balore, eskubide, partaidetza edo kontratuen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Hamabi. "ZEHAPENAK" eremua gehitu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 442tik 453ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
442-453	Zenbakizkoa	ZEHAPENAK Batzordearen 2018ko maiatzaren 25eko 2018/1229 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakotik eratorritako zehapenen zenbatekoa idatziko da; erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 (EB) Erregelamendua osatzen du, likidazio diziplinari buruzko erregulazio arau teknikoari dagokienez. Eremu hau bi eremutan banatzen da: 442-451 Zehapenen zenbatekoaren zati osoa. 452-453 Zehapenen zenbatekoaren zati hamartarra.

Hamairu. "LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 454tik 461ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da eta, aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuari dagozkion posizioak eguneratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
454-461	Zenbakizkoa	LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA Eremu hori beteko da "C", "D", "L", "V", "Y" eta "Z" eragiketa gakoei dagozkien loturiko eragiketetan (134 posizioa), kasuan kasuko loturiko eragiketaren "HURRENKERA ZENBAKIA" eremuan azaltzen den hurrenkera zenbakia jarrita (177-184 posizioak). Halaber, bete egingo da harpidetza eskubideak eskuratzeko eragiketetan ("A" eragiketa gakoa) eta akzioak harpidetzeko eragiketetan ("S" eragiketa gakoa), baldin eta eragiketa horiek zerrendatu behar badira, halaxe adierazten baita "ERAGIKETA GAKOA" eremuan ("X" gakoa).
462-500	—	ZURIUNEAK

Hamalau. Eguneratu egin dira "ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremuko posizio berriei egindako erreferentziak. Eremu horrek 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 454-461 posizioak betetzen ditu, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko erregistro diseinuetan, honako eremu hauetan: "ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA" (2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 368-371 posizioak); "BITARTEKARIAREN IFZ" (2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 372-380 posizioak) eta "BITARTEKARIAREN ABIZENAK ETA IZENA, SOZIJETATE IZENA EDO IZENDAPENA" (2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 381-420 posizioak).

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, onesten duena 289 eredua finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da I. eranskina-Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredua) aurkeztu behar duten.

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK
Alemania	Liechtenstein	Albania
Austria	San Marino	Antigua eta Barbuda
Belgika	Andorra	Saudi Arabia
Bulgaria	Monako	Argentina
Zipre	Suitza	Aruba (Herbehereak)
Kroacia		Australia
Danimarka (**)		Azerbaijan
Eslovenia		Barbados
Estonia		Belize
Finlandia		Bonaire (Herbehereak)
Frantzia (**)		Brasil
Grezia		Brunei Darussalam
Hungaria		Kanada
Irlanda		Txile
Italia		Txina
Letonia		Kolonbia
Lituania		Korea

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK
Luxemburgo Malta Herbehereak (**) Polonia Portugal Txekiar Errepublika Eslovakiako Errepublika Errumania Suedia		Costa Rica Curasao (Herbehereak) Dominika Ekuador Georgia Ghana Gibraltar (Erresuma Batua) (***) Granada Groenlandia (Danimarka) Guernsey (Erresuma Batua) Hong Kong India Indonesia Islandia Cook Uharteak (Zeelanda Berria) Man Uharteak (Erresuma Batuan) Feroe Uharteak (Danimarka) Israel Jamaika Japonia Jersey (Erresuma Batuan) Kazakhstan Kenia Libano Macao (Txina) Malasia Maldivak Maroko Maurizio Mexiko Moldavia Montenegro Montserrat Nigeria Niue Norvegia Kaledonia Berria (Frantzia) Zelanda Berria Oman Pakistan Panama Peru Erresuma Batua Errusia Saba (Herbehereak) Samoa Sain Kitts eta Nevis

"OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (**)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK	2024 ETA HURRENGOAK
		San Eustakio (Herbehereak) San Martin (Herbehereak) Saint Vincent eta Grenadinak Santa Luzia Seychelleak Singapur Hegoafrika Thailandia Tunisia Turkia Ukrania Uganda Uruguay Vanuatu"

(\*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(\*\*) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabeen agertzen diren lurraldeak izan ezik (Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluen b) eta c) letrak).

(\*\*\*) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltari buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Bi. Aldatzen da II. eranskina- Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzaitzat» jotzen direnena.

"PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Albania	Grezia	Nauru
Alemania	Groenlandia (Danimarka)	Nigeria
Andorra	Guernsey (Erresuma Batua)	Niue
Aingira (Erresuma Batua)	Hong Kong	Norvegia
Antigua eta Barbuda	Hungaria	Kaledonia Berria (Frantzia)
Saudi Arabia	India	Zeelanda Berria
Argentina	Indonesia	Oman
Aruba (Herbehereak).	Irlanda	Herbehereak
Australia	Man uharteak (Erresuma Batua)	Pakistan
Austria	Islandia	Panama
Azerbaijan	Caiman uharteak (Erresuma Batua)	Peru
Bahamak	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Polonia
Bahrain	Feroe uharteak (Danimarka)	Portugal
Barbados	Marshall uharteak	Qatar
Belgika	Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua)	Erresuma Batua



"PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Belize	Birjina uharte britainiarrak (E. Batua)	Txekiar Errepublika
Bermuda (Erresuma Batua)	Israel	Eslovakiar Errepublika
Brazil	Italia	Errumania
Brunei Darussalam	Jamaika	Errusia
Bulgaria	Japonia	Samoa
Kanada	Jersey (Erresuma Batua)	Saint Kitts eta Nevis
Txile	Kazakhstan	San Marino
Txina	Kenia	Sint Maartin (Herbehereak)
Zipre	Kuwait	Saint Vincent eta Grenadinak
Kolombia	Letonia	Santa Luzia
Korea	Libano	Seychelleak
Costa Rica	Liberia	Singapur
Kroacia	Liechtenstein	Hegoafrika
Curasao (Herbehereak)	Lituania	Suedia
Danimarka	Luxemburg	Suitza
Dominica	Macao (Txina)	Thailandia
Ekuador	Malaysia	Tunisia
Arabiar Emireerri Batuak	Maldivak	Turkia
Eslovenia	Malta	Ukrania
Estonia	Maroco	Uganda
Finlandia	Maurizio	Uruguay
Frantzia	Mexiko	Vanuatu"
Georgia	Moldavia	
Ghana	Monako	
Gibraltar (Erresuma Batua) (*)	Montenegro	
Granada	Montserrat (Erresuma Batua)	

(\*) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibralтари buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

#### Azken xedapena

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2023. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 11

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**